

MARKINA FRAI BARTOLOMEREN GARAIA (1768-1835)

Frai Bartolome 1768. urtean jaio eta 1835. urtean hil zen. Zentzu honetan, XVIII. mendearen bigarren erditik XIX. mendearen lehen erdira arte bizi izan zen. Artikulu honetan, bere biziak iraun zuen hirurogeita zazpi urte hoietan Markinako herriak ezagutu zuenaren berri ematen saiatuko naiz. Hain zuzen ere, Frai Bartolomek bere bizitza gehiena egin zuen herriko gora-beherak ezagutzeak bera hobeto ulertzen lagunduko digulako.

XVIII. MENDEAREN BIGARREN ERDIA MARKINAN (1766-1800)

Frai Bartolome XVIII. mendearen bigarren erdian (1768. urtean) jaio zen Etxebarriako Sagarmina baserrian eta Xemeingo Sakoneta baserrian eta, ondoren, Markinako Karmeldarren Komentuan bizi izan zen. Garai honetan, Markina eta Xemein herriek, biak batera, 1761 biztanle zituzten.

Burdinolei eta bereziki nekazaritzari loturik zegoen Markina eta inguruko herrien bizimodua XVIII. mendean. Eta, itxura guztien arabera, ekonomiaren iturri biak ere egoera onean zeuden garai honetan. "Ondorengotza gerrearen ostean burdinolei jarduera areagotu egin zanez, burdinaren ekoizpena handitu egin zan eta burdinea lortzeko laneku gehiago behar

izan zan...Bestalde, lubarriketen prozesuari XVII. gizaldiaren azken laurenean ekin jakon, XVIII. ean areagotu eta beraz, landatu eta ereindako eremua zabaldu zan¹. Zentzu honetan, Euskal Herria osoan bezala, Markinan ere egoera ekonomikoa hobeaigotu eta demografia ere handitu egin zan XVIII. mendean².

Dena dela, bizi maila eta egoera ekonomiko ezberdinak zeuden markinarren artean. Eta krisi ekonomiko egoeretan ezberdintasun hauek nabarmendu eta matxinada bezala leheritzen ziren behin baino gehiagotan, Hoietariko matxinada bat izan zen Gipuzkoan hasi eta Markinan ere eragina izan zuena 1766. urtean.

1766.eko Matxinada Markinan

1766. urteko matxinada bizibide mutina izan zela esan daiteke. Gosearen edoeta haren beldurrak eragindakoa. Izan ere, lurra gero eta esku gutxigotan zegoen eta errentak gero eta handiagoak ziren. Ondorioz, gero eta gutxiago zuten baserritarrek kontsumorako.

Matxinada Azkoitia aldean hasi bazen ere, berehala heldu zen Markinara. Mugartegiren hitzetan, gehiegikeria, lapurreta eta heriotza ugari sortu zituen Markina eta inguruetan: "La sedición tuvo principio en los pueblos comarcanos de la vecina provincia de Guipuzcoa, donde habiendo llegado la noticia del motín contra el Marqués de Squilache, en el cual el Rey, para contener a las turbas, prometió que los víveres se bajarían cuatro cuartos en libra con cargo al erario público, pretendieron que también en este territorio se aminoraran los precios de los granos y otros artículos; y habiendo entrado en la Merienda de Marquina, revoltosos de Motrico y de Elgoibar, hallaron en ella terreno abonado y gente propicia a secundar-

¹ Lorenzo, F: *Markina-Xemein*. Bizkaiko Herrien Monografiak. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao, 1996, 38. orr.

² Lorenzo, F: *Markina-Xemein*, aip. lib. 37. orr.

les, extendiéndose el movimiento a la Anteiglesia de Berriatua y a la villa de Ondárroa, cuyo puerto lo destinaron los motinados para la libre introducción de trigo, maíz, y otros comestibles y artículos diversos.

La reunión que los vecinos de la Villa celebraron el día 18 de Abril en la Casa de Consistorial y la que al día siguiente tuvo lugar en el coro de la Parroquia de Jemein, con asistencia de gentes de toda la Merindad, fueron de carácter francamente anarquista, ya que en ellas se adoptaron acuerdos encaminados a pedir por la fuerza la baja de los granos hasta una cantidad irrisoria, o en caso contrario, la entrega de los mismos para su repartición entre los vecinos, acordando quemar las casas de los señores de la Villa y anteiglesias, sino accedían a ello o si se permitía la extracción de granos de esta Merindad, aplacándose esta violenta situación con la asistencia de los principales propietarios a la reunión que tuvo lugar el día 23 del mismo mes de Abril en la sala del Concejo de la Villa, en la que se llegó a una transacción pasajera³.

Honela, beraz, Frai Bartolomeren jaiotzaren aurreko urteak nahiko nahasiak izan zirela Markinan eta, orokorrean, Euskal Herria osoan oso kontuan izan behar da.

Komentzio Gerra Markinan (1793-1795)

Frai Bartolome Markinako komentura noiz etorri zen zehatz-mehatz ez badakigu ere, badirudi 1793. urtean Nafarroan zegoela. Urte honetan, Merzedeko elizaren bedeinkapena (irailaren 24an) egin zenean alegia, Frantziak gerra adierazi zion Espainiari (1793.eko martxoaren 23an). Handik gutxira, Markinako udaltxeak herri-soldaduzka bat antolatzea erabaki zuen herria defendatzeko. Mugartegik dioen bezala "...el Ayuntamiento de Marquina, comprendiendo la necesidad de estar prevenido para toda clase de acontecimientos, por su po-

³ Mugartegui, J.J.: *La Villa de Marquina. Monografía Histórica*. Imp. Echeuren y Zulaica, Bilbao, 1927, 159. orr.

sición cercana a Guipúzcoa, acordaba, en sesión del día 10 de Abril, la creación de una milicia urbana compuesta de 236 hombres...disponiendo al propio tiempo que dos comisionados se encargasen de la compra de seis arrobas de pólvora y de seis mil balas⁴. Are gehiago, frantsezek Gipuzkoa hartu zutenean, udaletxeak goardiak egin behar zirela frantsezengandik babesteko erabaki zuen. Kontuan izan behar da, Markina Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko mugan dagoela eta, ondorioz, frantzen inbasioaren beldur zirela markinarrak.

Mugan egotearen ondorioz, guda-gizon asko etorri zen Markinara Bizkaiko lurra Frantsesengandik babesteko. Gerrak, herritarren eta, bereziki, udal ordezkarien bizitza goitik behera aldatu zuen. Berriro ere Mugartegiri jarraituz, "Todo este movimiento de tropas ocasionó en la villa un extraordinario aumento de población flotante, y obligó a su Ayuntamiento a estar constituido en sesión casi permanente, para adoptar las medidas que juzgó más urgentes y necesarias, a fin de proporcionar víveres y alojamiento a las fuerzas y asegurar la tranquilidad del vecindario, poco acostumbrado a tener tanta gente dentro del pueblo"⁵.

Inolako zalantzarik gabe, Komentzio Gerrak gauza asko aldatu zituen Markina eta inguruko herrietan. Muga babesteko miliziak antolatu behar, jende arrotza herrian zehar, goardiak egin behar...mugan zegoenez gainera beste toki batzuetan baino atsedean gutxiagoa zuten markinarrek eta, ondorioz, ekonomia ere oso kaltetua gelditu zen.

1795.eko abuztuaren 5ean Basileako bakea sinatu zen Espainia eta Frantziaren artean. Bakeak lasaitasun izugarria ekarri zuen Markinara eta ospatzeko jaiak antolatu zituen udaletxeak. Gerraren bukaera poztasun handiz hartu zela Markinan ez dago ukatzerik.

⁴ Mugartegui, J.J.: *La Villa de Marquina*. Aip. Lib. 167. orr.

⁵ Mugartegui, J.J.: *La Villa de Marquina*. Aip. Lib., 170. orr.

Karmengo Plazako iturriaren eraikuntza (1787-1788)

1787 urtean Markinarrentzat garrantzi berezia duen eraikuntza bati eman zitzaion hasiera; hau da, Karmengo Plazako Iturria egiten hasi ziren. Nahiz eta iturrian bertan 1787. urtea adierazten den, 1787-1788 urte bitartean eraikitakoa dela esan beharra dago. "Udalak argi ikusten zuen urik ezaren eta sanitatearen arazoak. Horregatik, 1785 garrenean, iturri bat egin beharra adierazi zuen, eta bide batez, ganaduen hiltegian sortzen ziren zikinkeriei bidea emateko, estoldak egitea tokirik egokienetik.

(...)1787.eko martxoan, iturria egiteko aurreko urtean burututako bi proiektu aurkeztu ziren udaletxean: bata, Frantzizko Etxabe mañariarrarena zen; eta bestea, Gabriel Kapelastegirena. Lehenengoarena hobetsi zen. Aipatutako iturri hori eraiki behar zen Ugarteko gartzainaditik ura eramanez...⁶.

Iturri honek garaiko jende guztia liluratu zuen. Esan beharrik ere ez dago eraikuntza garrantzitsua izan zela markinarrentzat.

Hiltegi berria (1791)

Behin iturriko ura lortuta, garbitasun abantaila guztiak zituen hiltegi berri bat eraikitzea ere pentsatu zuen udaletxeak 1791. urtean. Gaur egun, era honetako eraikuntzak garrantzi gutxiak iruditzen bazaizkigu ere, garai hartako markinarrentzat oinarri oinarritzekoak ziren. Nekazaritzari loturiko gizarte bat izanik, behar bezalako hiltegi bat edukitzea ezinbestekoa zen.

Frontoi berria (1797)

Pelotak garrantzi handia izan duela eta gaur egun ere duela Markina eta inguruko biztanleen bizitzan ez dago ukatzerik.

⁶ Baraiazarra, L. eta Urkiza, J.: "Markinako Udala Karmengo Komentuaren Babesteile Aparta". *Garaian*, 8. zenbakia, 1991, 41. orr.

Ikus ere, Urkiza, J.: *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Karmel Sorta 5, Zornotza, 1992, 61. orr.

Frai Bartolome bizi izan zen garaian ere pelota jokoa denborapasa garrantzitsua zen markinarrentzat. Honela bada, frontoia berriztatzea erabaki zuen udaletxeak 1797. urtean. Zentzu honetan, iturria eta hiltegia egin ondoren, XVIII. mendearen bukaeran Markinan egin zen eraikuntzarik garrantzitsuena izan zela esan genezake. Mugartegik dioen bezala, "Pasados los años debió variar la forma de juego, entrando la costumbre de jugarse a largo, y el municipio, que pocos años antes había hecho cuantiosos desembolsos para llevar a cabo la obra de la traída de aguas, considerando el general deseo del vecindario de tener un local para practicar esta nueva modalidad del juego de la pelota, se determinó a emprender esta mejora. En el año 1797 fue anunciada la ejecución de la obra..."⁷.

XIX. MENDEAREN LEHEN ERDIA MARKINAN (1801-1835)

Behin XVIII. mendean Markinan izan ziren gertakizun garrantzitsuenei buruz hitz egin ondoren, XIX. mendean gertatutakoak aurkeztera pasatuko naiz. Eta lehenengo eta behin, Humbolt-ek Markinari buruz esan zituenak aurkeztuko ditut Frai Bartolomereren garaiko biztanleen eguneroko bizitza nolakoa zen ulertzeko.

Eguneroko bizitza Markinan XIX. mendearen hasieran

1802. urtean Frai Bartolome Markinan bizi zela badakigu. Urte bat aurrerago, hau da, 1801. urtean, Wilhelm Freicher Von Humbolt (1767-1835) etorri zen Markina ezagutzera eta bertan egin zituen egun bietan ikusi zituenen berri eman zuen *LOS VASCOS. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801* liburuan. Interesgarria da Frai Bartolomek 33 urte zituenean Markina eta markinarrei buruz idatzi zituenak irakurtzea markinarren eguneroko bizitza nolakoa zen ulertzeko.

⁷ Mugartegui: *La Villa de Marquina*. Aip. Lib., 142. orr.

Humbolt-ek dioen bezala, Markina nekazaritzari loturiko herria zen XIX. mendearen hasieran. Baserritarrek lur zati txikiak zituzten eta nekazaritzaz aparte beste langintza batzuetan ere aritzen ziren. Baserritarrek nahiko bizitza ona zeramatela azpimarratzen zuen gainera: "Como los patrimonios son pequeños, su cultivo sólo ocupa al labrador, a pesar del múltiple trabajo, una parte del año. En el resto ejercen muchos oficios, y no pocos se dispersan como carpinteros en la región circunvecina. Si bien los campesinos vascongados no puede decirse que sean ricos, viven, sin embargo, en su mayoría muy bien. Como ellos mismos me dijeron en Marquina, comen todos los mediodías carne, beben por la tarde siempre vino y también su almuerzo es abundante"⁸.

Interesgarria da ere garai hartan baserritarrek zuten soldadari buruz idatzi zituenak irakurtzea. Bere ustez, Markinako baserritarrek soldata handiak zituzten: "Los jornaleros tienen aquí a veces sus propios bueyes, pues ellos también tienen heredad propia. Trabajando como éstos cobran aquí, además del almuerzo, y pan, y vino por la tarde, 10 reales por día, 15 gruesos en oro, sin bueyes la mitad. Una mujer cobraba todo el alimento y 1 real, 1 grueso y 6 peniques en oro, así que el jornal es bastante caro en relación al país"⁹.

Markinarren bizimoduaren berezitasunekin jarraituz, aipatzekoa da garaian honetan euskara indartsu zegoela Markinaldean. Julen Urkizak XVIII. mendearen bukaeran euskarak zuen indarraren adierazle argi baten berri ematen digu: "Nafarroako San Joakin zeritzon karmeldarren euskal Probintziako Aita Probintzialak 1782.eko irailaren 13an Markinatik Probintziako Prioreei idatzitako gutuna gogora dezakegu: hain zuzen ere, bertan, meza-laguntzaile izateko euskara zekiten mutikoak hartu eta beraien artean karmeldar bo-kazioak bultzatzeko agintzen zien"¹⁰. Gizarte euskaldun bat

⁸Humbolt, G. De: *Los Vascos*. Aip. Lib., 97. orr.

⁹Humbolt, G. De: *Los Vascos*. Aip. Lib. 97. orr.

¹⁰Urkiza, J.: *Karmeldarrak Markinan*, aip. lib., 68. orr.

izanik, fraile euskaldunen beharra argi eta garbi ikusten zuen Karmeldarren Probintzialak.

XIX. mendearen hasieran ere, zehazki 1808. urtean, Markinaldean erderaz zekitenak gutxi zirela adierazten digun gertaera batekin aurkitzen gara. *Colección de Documentos Inéditos de la Guerra de la Independencia* liburuan¹¹ Bolibarko aita- seme batzuk frantsezen aurkako gerran aritzen zirenei eman zioten laguntza eta, horren ondorioz, jasan behar izan zuten epaiketaren berri ematen da. Agiri horretan, Ikestei-Beheko baserriko Juan de Zuazok (1808. urtean 54 urte zituen), ez zekiela erdaraz aipatzen da. Ondorioz, Bilbon egin zioten epaiketetan itzultzaile bat behar izan zuen.

Independentzia Gerra Markinan (1808-1814)

Humboult Markinara etorri zenean baserritarrek bizitza lasaia eramaten bazuten ere, gauzak asko aldatuko dira Frantsesak Euskal Herrian sartzen direnean. Zalantzarik gabe, frantsesen aurkako Independentzia Gerrak eragin izugarria izan zuen Markina eta inguruko herrietan. Gerrak sortu zuen desegituraketaz gain (atxiloketak, heriotzak eta lapurretak, batez ere), Markinako herriak babeserako konpainiak antolatu eta gerra egiteko zein frantsesak mantentzeko diru ugari eman behar izan zuen. Gastu hauei aurre egiteko, herri-lur eta basoak saldu baziren ere, egoera ekonomiko oso larrian gelditu zen udaletxea. Komertzio Gerrak bezala, Independentzia Gerrak ere eragin ezkor ugari izan zuen Markinarren bizitzan.

Frai Bartolomeren izena askotan agertuko da frantsesekin sortzen diren tirabiretan. Izan ere, Frai Bartolome Markinako predikaria zen frantsezak Bizkaian sartu zirenean eta, itxura gutzien arabera, frantsezen aurkako jarrera argia hartzen zuen bere sermoietan. "Frantsezak 1808an Bizkaian sartu eta gerra

¹¹ Carlos Gonzalez Etxegarai (Zuzendaria): "Expediente número 31 del legajo num. 94 del Archivo del Corregimiento de Vizcaya" en *Colección de Documentos Inéditos de la Guerra de la Independencia*, Bilbao, 1959.

sortu zenean, Markinako Karmeldarrek bederatzizurren eta oitozaldiak egiten zituzten lurralde hau etsaien menpetik onik iritzeko; baina ispi eta salatariak ziren ugari bazterretan eta, Jainkoari euria eskatzearen atxakipean egiten ziren elizkizunok: **"para ponernos a cubierto de los espiones que ya abundaban en la comarca** (A-I-70 Fr. Bartolome de Santa Teresa. Apuntaciones de lo ocurrido...3. orr.).

J.J. Avril gobernariak, udalari bere haserrea agertzen zion Karmeldarren kontra. Hauek, jendearengan zuten eraginez baliaturik herria nahastatu eta herritarrengan frantsezen aurkako amorrua pizten zutelà salatuz (MKA, A-I-70 Fr. Bartolome de Santa Teresa. Apuntaciones de lo ocurrido...3. orr.)

Udalak karmeldarrekin harreman onak zituenez gero, Karmengo nagusiari erakutsi zion gobernariaren eskutitza. A. Bartolomek dioenez, fraide guztiak atxilotu eta Bilbora eramateko asmoa zuten.

Hain arrisku handitan euren buruak ikusirik, auzia garbitzeko Bilbora bidali zuten komentuko sermolari zen Frai Bartolome. 1809.eko urtarrilaren 2a zen. Salakuntzak nondik zetozen garbi jakin ahal izan zuen, baita salataria nor zen ere. Salatari gezurrontzi hau, komentuko fraide bat zen, Fr. Tomas, Errioxako Castañares-ko semea eta erdi zoroa; aurrez beste herri eta komentuetan egindako okerkerkiengatik, Markinako komentuan zigorra betetzen zegoena. A. Bartolomek, Markinara inspektore edo informatzaile bat bidal zezala eskatu zion gobernariari eta baita lortu ere.

Lino Tavoia etorri zen. Udala Karmeldarren alde irten zen oraingoan ere, haiei leporatzen zitzaizkien lau puntutako salakuntza ukatuz. Erlijosoen aurkako gauza horien berririk ez zuela udalak. Inguruko herriak ere Etxebarria, Barinaga, Berriatua eta Ziortza fraideen alde agertu ziran.

Fraideak, 1809.eko urriaren 14an, komentutik kanpora bidaliak izango zirela eta, pixka bat lehenago, udalak, eliza parrokiaren laguntzarako zabalik egotea lortu zuen eta sei fraide,

komentutik kanpora bizi arren, hango elizkizunen ardura izan zezatela (MUA, Libro de decretos...1806-1810; MKA, A-I-59)"¹².

1809. urteko abuztuan, Jose Lak udal-kontseiluak eta erlijio-soen Ordenak kentzeko dekretua eman zuen eta Karmeldarren komentuko fraideak irtetzera behartuak izan ziren urte bereko urrian. Frai Bartolome Bilbora eraman zuten atxilotua eta ondoren, Etxebarriko Bikarioaren etxean konfinatu zuten. Han apaiz laguntzaile lana egiten hasi zen.

Egia esan, ez dirudi gezurrezkoak zirenik karmeldarren aurkako salaketak. Julen Urkizak, garaiko karmeldarrek frantsezen aurka zuten jarrera argi eta garbi adierazten duen Frai Bartolomek berak idatzitako pasarte hau eskaintzen digu: "Oinarri-oinarrian ez zen guztiz gezurrezkoa lau salaketetan adierazia; baina erlijiosoak ez ziren beraien jokaera abertzalea agerian ez ezkutatze adinako burubakoak; eta frantsesari salatzea beti zen gaizki ikusia. Egia da, bai komunitate honetako erlijioeok ahal izan zuten neurrian sinestuedunen artean erlijio, aberri eta gatibu zegoen benetako erregearenganako maitasuna mantentzen saiatu zirela, bai elkarrizketetan, bai aitortokietan, bai beren buruak arriskuan jarritz, hitzaldietan, geroago Bilboko epaitegiak Komentu honetako Aita Semoilariaren aurka jarritako auzian ageri zenez, sermoi baten zioz espetxeratu eta epaitua izan zelarik"¹³.

Komentua zarratu, praileak atxilotu, udaletxeak diru gabe utzi, udal-kontseiluak kendu...ez da harritzekoa garai hartako Markinarrek Frantsezen aurkako jarrera sutsua izatea. Aipatzekoa da, zentzu honetan, lehen aipatu dugun Bolibarko Ikestei Behoke baserriko Juan eta Pedro Zuazo aita-seekek Bilbotik Arrasatera zioan postaren lapurretan parte hartu zuten lau gerrilariei emandako laguntza¹⁴. Aita-sume hauen parte

¹² Baraiazarra, L. eta Urkiza, J.: "Markinako Udala Karmengo Komentuaren Babestaile Aparta". Aip. Art., 41. orr.

¹³ Urkiza, J.: *Karmeldarrak Markinan*. Aip. Lib., 82. orr.

¹⁴ Carlos Gonzalez Etxegarai (Zuzendaria): "Expediente número 31 del legajo num. 94 del Archivo del Corregimiento de Vizcaya". Aip. Art.

hartzea argi bazegoen ere, ez zituzten kondenatu. Herritarren gehiegia, epaileak barne, frantsezen aurka baitzeuden: "Por las declaraciones de los testigos que figuran en este expediente, personas de las distintas clases sociales del Señorío de Vizcaya, notamos que todo el pueblo estaba identificado con los acusados, incluso el Corregidor, al declarar en su Sentencia, la inculpabilidad e inocencia de los citados Juan y Pedro de Zuazo, pues por sus propias manifestaciones, vemos fueron cómplices y encubridores de los encartados"¹⁵. Kontuan izan behar da, minoria bat izan zela bakarrik frantsezen alde agertu zena Bizkaian. Hain zuzen ere, frantsezengandik etekina ateratzen ari ziren merkatari eta agintari batzuk bakarrik.

1812. urteko martxoaren 19an Espainiako Konstituzioaren aldarrikapena egiten da eta 1813. eko uztailaren 27an Markinako herriak Gasteizen frantsezen aurka lortutako garai-pena (uztailaren 21ean) Te Deum kantatuz eta jaiak antolatuz (dantza, musika...) ospatu zuen.

Frantsezak joan zirenean, Frai Bartolome komentuan sartu zen. Hain zuzen ere, 1813.eko abuztuaren 17an izan zen hori. Komentuko giltzak eskuratu ondoren, Martin Lauzirika Markinako alkateari parte eman zion eta honek pozez hartu zuen berri on hori eta hogerleko bat eskaini zion lehenengo meza emateko¹⁶.

1813. urteko abenduan Fernando VIIak Napoleonekin hitzarmena sinatu eta Espainiako errege-koroa berreskuratu zuen. Honela bada, 1814. urtean Fernando VII.a Espainiara itzuli zen eta monarkia absolutua eta foru sistema berrezarri zituen. Udaletxeak antolatuta, Te Deum abesten da erregearen etorrera ospatzeko 1814. urteko maiatzaren 6an. Urte berean, Frai Bartolome Markinako predikari izendatuko dute berriro ere.

¹⁵ Carlos Gonzalez Etxegarai (Zuzendaria): "Expediente número 31 del legajo num. 94 del Archivo del Corregimiento de Vizcaya". Aip. Art. 58. orr.

¹⁶ Baraiazarra, L. eta Urkiza, J.: "Markinako Udala Karmengo Komentuaren Babestaile Aparta", Aip. Art., 41. orr.

Frai Bartolomeren azken urteak (1815-1835)

1817. urtean Markinak bertako eliza eta zenbait eraikuntzatan eragin zuen lurrikara bat ezagutu zuen¹⁷. Urte horretatik 1820.era Frai Bartolome Markinako komentuko nagusi izan zen.

Orokorrean, Frai Bartolomeren bizitzako azken urteak nahiko nahasiak izan ziren politikoki. Hain zuzen ere, 1812ko konstituziozaleen eta foruzaleen arteko borroka guztiak eta Lehen Gerra Karlistako (1833-1839) lehen bi urteak urra-urratik ezagutu zituen.

Aipatzekoa da 1815, 1819, 1826, 1830 eta 1833. urteetan Antonio Maria Ansotegi izan zela Markinako alkate. Alkate hau foruzale amorratua eta Fernando VII.aren aldekoa zen. Markinako agintarien artean liberalen aldekoak bazeudela badakigu ere¹⁸, orokorrean, Markinarrak ideia absolutisten aldekoak zirela pentsa genezake. Ez dugu ahanzi behar, garai honetan foruzaletasuna oso zabaldurik zegoela Euskal Herria osoan eta askorentzat sistema absolutista zela foruak mantentzeko bide bakarra.

1820. urtean Riego-k 1812.eko Konstituzioa aldarrikatu zuen. Eta Markinako herriak jokoak, su artifzialak eta kanpai hotsekin ospatu zuen errege agintuz etorren Konstituzioaren berrezarpena. Konstituzio hau 1820tik 1823ra egongo da indarrean.

Errejimen Absolutistaren Berrezartzea eta Lehen Gerra Carlista

1823. urtean San Luisen 100.000 semeak Espainian sartu ziren. Fernando VIIak 1812ko Konstituzioa eta berau indarrean egon zen bitartean (1820tik 1823ra) egindako legeak baliogabetu eta Errejimen Absolutista berrezartzen du berriro ere. Honekin, lehengo bizimodu normalera itzuli ziren karmeldarrak alde guztietan. Kontuan izan behar da, Riegoren

¹⁷ Mugartegui: *La Villa de Marquina*. Aip. Lib., 87. orr.

¹⁸ Mugartegui: *La Villa de Marquina*. Aip. Lib., 226-227. orrk.

Gobernuak eleiz erreforma sakonei ekin ziola eta horrek komentu guztietan eragin izugarriak izan zituela. Aurreko aldaketa politikoeekin bezala, Errejimen Absolutistaren berrezartzea ere ospatu zuten markinarrek¹⁹.

Errejimen Absolutoa berrezarrita, bake garai labur bat ezagutu bazen ere, egoera aldatzen hasten da 1826. urtean. Izan ere, Errejimen Absolutuaren aurkakoak gero eta ageriago agertzen dira eta iskanbila armatuak eta liskarrak ere gero eta normalagoak dira. Honela bada, eta Diputazioaren aginduz, herritarrez osatutako konpainia bi osatzen dira Markinan.

Aipatzekoa da 1828tik 1830ra, argia eta harria jarri zirela Markinako kaleetan. Mugarteguiak dioen bezala, "Los faroles del alumbrado públicos se colocaron ya el año 1.828 y el año 1830 se llevó a cabo el enchachado de las calles y la colocación de aceras de piedra arenisca..."²⁰.

Gerrarako prestatzen aspaldiak hasiak baziren ere, Karlisten altxamendua ez zen 1833. urterarte hasi. Gerra 1833. urtean Fernando VIIa hil eta agintea Maria Kristinaren eskuetara joan zenean hasi zen. Aipatzekoa da, ondorengotza-eskubideei buruzko eztabaidaren azpian foruei buruzko borroka argia ere bazegoela gerra honetan.

Markina eta inguruetan gerra ekintzarik ez zen ezagutu. Dena dela, askotan agertzen edo pasatzen ziran guda-gizonak Markinatik zehar eta hauei jaten ematera behartua zegoen Udaletxea. Ondorioz, udalak zor handiak egin zituen. Mugartegik dioen bezala, "Aunque ni en Marquina, ni en sus alrededores tuviese lugar ninguna acción de guerra y sí solamente algunas escaramuzas entre ambos ejércitos combatientes, era constante el paso y estancia de tropas a las que se veía obligado el municipio a racionar, siendo ello motivo de tan extraordinarios gastos..."²¹. Zorrak ordaintzeko, Independentzia

¹⁹ Mugartegui: *La Villa de Marquina*. Aip. Lib., 221. orr

²⁰ Mugartegui: *La Villa de Marquina*. Aip. Lib., 157. orr.

²¹ Mugartegui: *La Villa de Marquina*. Aip. Lib., 229. orr.

Gerraren ondorioz asko murriztu ziren herri-baso eta lurak saltzera atera zituen Udaletxeak. Gerra, zorrak, iskanbilak non-nahi... egoera oso berezian zegoen herria eta, ondorioz, inork ez zuen alkate ez sinegotsi izan nahi. Lehen Gerra Karlistak sortu zuen egoera nahasi honetan hil zen Frai Bartolome 1835.eko abenduaren 11an.

MARKINA ETA XEMEIN FRAI BARTOLOMEREN GARAIA (1768-1835): ZENBAIT ONDORIO

Ikusitakoak ikusi ondoren, Frai Bartolome bizi izan zen garaian Markinak hiru berezitasun nagusi zituela esan daiteke:

- Frai Bartolome bizi izan zen garaian nekazaritza zen nagusi Markina eta inguruko herrietan. Baserri giroko gizarte euskaldun batean jaio eta bizi izan zen, beraz.

- Markinarrentzako eraikuntza garrantzitsuak egin ziren garai bat ezagutu zuen Frai Bartolomek. Karmengo iturria, Merzedeko Elizaren bedeinkapena, Frontoi berria, hiltegi berria, kaleetako argi eta harriztatzeak...Markinak herri bezala izan duen historiaren aro garrantzitsu batean bizi izan zen.

- Ikuspuntu politikoari dagokionez, Euskal Herriko historiaren momentu nahasian bizi izan zela esan genezake. Errejimen Zaharra nola desegiten ari zen eta euskal Foruak nola galtzen ari ziren hurbil-hurbiletik ezagutu zituen Frai Bartolomek. Era berean, Komentzio Gerra (1793-1795), Independentzia Gerra (1808-1814) eta Lehen Gerra Karlistak (1833-1839) ere ezagutu zituen. Eta hiru gerra hauek eragin izugarria izan zuten Markina eta inguruko herrietan, bereziki garaiko karmeldarrentzan. Komentua zarratu, atxilotetak, goardiak egin behar, gerrako gastuak ordaindu behar...orokorrean nahiko bizitza latza izan zutela garai haretako markinarrek ez dago zalantzarik.

Erabilitako bibliografia

- Agirreazkuenaga, J. et al.: *Diccionario Biográfico de los Diputados Generales, Burócratas y Patricios de Bizkaia (1800-1876)*. Bizkaiko Batzar Nagusiak, Bilbao, 1995.

- Baraiazarra, L. eta Urkiza, J.: *Markinako Udala Karmengo Komentuaren Babestaile Aparta*. Garaian, 8. zenbakia.
- Carlos Gonzalez Etxegarai (Zuzendaria): "Expediente número 31 del legajo num. 94 del Archivo del Corregimiento de Vizcaya" en *Colección de Documentos Inéditos de la Guerra de la Independencia*, Diputación de Vizcaya, Bilbao, 1959.
- Extramiana, J.: *Historia de las Guerras Carlistas* (Vol. I). Haranburu, San Sebastian, 1979.
- Humbolt, G. De: *Los Vascos*. Ediciones Vascas. Donosti, 1979, 94. orr.
- Lorenzo, F: *Markina-Xemein*. Bizkaiko Herrien Monografiak. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao, 1996.
- Mugartegui, J.J.: *La Villa de Marquina. Monografía Histórica*. Imp. Echeguren y Zulaica, Bilbao, 1927.
- Urkiza, J.: *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Karmel Sorta 5, Zornotza, 1992, 61. orr.

Patxi Juaristi